

## Anita Glesta • Artista

Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrenean Euskal Herrira ekarri nahi du 'Gernika-Guernica' artelana, New York eta Bizkaiko herria zubi moduan lotzen duen lana

# «Gizakiok bizipen bortitzei aurre egiteko gai garela islatu nahi dut»

Jon Rejado

Anita Glesta (Chicago, AEB, 1958) Dorre bikien pareko eraikinean bizi zen, 2001eko irailaren 11n. Etxean zegoen hegazkinek dorren aurka jo zutenean, eta, gertakari horien ondorioz, artelan bat mamitzen hasi zen. Picassoren *Guernica* gogoratu zuen. Gernika Gogoratuz zentroarekin harremanetan jarri, bonbardaketa bizi zutenekin bildu, eta testigantzak hartu zituen. Bonbardaketaren 70. urteurrenean inauguratu zuen lana New Yorken, bi zatitan; *Sky above ground below*, elkarriketak ardatz zituen bideoa, White Box Exhibition Space-n inauguratu zuen, eta, bigarrena, Chase Manhattan plazan.

Artelanaren bigarren atalak, *Gernika-Guernica-k*, brontzezko zortzi eskulturak osatutakoak, testigantzak erreproduzitzen zituen gaztelaraz eta ingelesez. Artelana inauguratu eta bost urtera Euskal Herrira itzuli da, testigantzak euskaratzeko eta lana hona ekartzeko babesa lortzen saiatzeko. Euskaratzea Ortzaiz Antzerki eta Zinema Laborategiak egin du.

Anita Glestak Kontxako hondartzaren aurrean dagoela jaso du BERRIAREN deia, 1972 eta 1976 artean Donostian bizi zela gozatu zuen tokian.

**Nola sortu zen *Gernika-Guernica*-ko testigantzak euskaratzeko asmoa. Nola jarri zinen harremanetan Ortzaizekin?**

Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena dela eta, artelanak hemen egon behar zuela erabaki nuen. Testigantzak gaztelaniaz eta ingelesez daude, baina euskaratzea egoki ikusi nuen. Euskaratzeko, norbaitengatik galdetu, eta Iker Ortiz de Zaraterekin hitz egiteko esan zidaten —Ortzaizko sortzailea—. Hitz egin genuen, egitasmoaren zentzua bikain ulertu zuen, itzulpena egin zuen...

**Egitasmoak zenbait pauso eman ditu 2007tik. Bideoa eta, bi hilabetera, eskulturak. Orain, testigantzak euskaratu dituzu... Bizirik jarraituko al du egitasmoak?**

Bideo instalazioa White Boxen inauguratu nuen, eta ordutik asko bidaiatu du. Duela bizpahiru urte Alvaro Amann Basques Fundazioko zuzendariarekin hitz egin nuen, eta esan zidan gustatuko litzaiokeela lana Euskadin geratzea. Arantzazu oso gustuko zuela esan zidan aurreko ekaine-



JESUS LOPEZ

an, eta ea niri zer iruditzen zitzaidan galdetu. Gogoeta leku bat da. Nire lanaren lehen zentzuarekin ere lotuta dago.

**Zer zentzutan?**

2001eko irailaren 11n izan nuen bizipenetan arriskua zerutik etorri zen. Gernikako bonbardaketaren lehen topaketan ere zeruari buruz hitz egin genuen. Gogoeta egiteko leku aproposa da Arantzazu, eta gogoeta egitera deitzen du artelanak. Eta hori horrela izan dadin ari gara lanean, urte honetan hara hel dadin.

**Oraintxe, ze egoeratan dago egitasmoa? Euskaratu ondoren...**

Euskaratutako testuak prest daude dagoeneko. Ortzaiz euskaratu eta grabatu ondoren, eskulturetan sartuko ditugu. Nire nahia artelana Euskadin geratzea da, Arantzazun ahal bada, eta handik mundu osora mugitzea. Hala, itxaropena dugu urrian Krakoviako (Polonia) arte garaikideko museora joateko.

**Artelana New Yorken egon da, Belgraden... Indarkeria pairatu duten zenbait lekutan. Zuretzat zer garrantzi du artelana mugitzeak?**

Irailaren 11ko gertaerak buruan nituela hasi nintzen egitasmoa nola egin behar nuen pentsatzen. Picassoren *Gernika* etorri zitzaidan burura orduan; gure giza izaeraren errealitateari benetako dimentsioa ematea, bi edo hiru dimentsiozko zerbaiten bitartez. Testigantzak grabatzea erabaki nuen; horrek historiaren, memoriaren indarra dauka. Artista

gisa, eskarmentu hori partekatzen laguntzen dit. Horregatik, nahiko nuke leku batean finkatuta egon arren mugitu ahal izatea, testigantzen eskarmentua eta nire historia bera partekatzeko.

**Itxaropena partekatzearen alde agertu zara. Giza bizipenak transmititzearen alde. Ildo horri eusten diozu, gauregun ere, zure lanean?**

Bai, noski, baina ez dut nahi lanak mezu bat izatea. Gizakiaren grinei bizirik eustea da nire asmoa; lanaren oinarria da denok gizakiak garela. Denok sentipenak ditugula. Bizipen bortitzei aurre egiteko gai garela. Nire edo-

**«Artelana mugi dadila nahi dut, testigantzen eskarmentua eta nire historia partekatzeko»**

**«Edozein arte mota beharrezkoa da gure zibilizazioan aurrera egiteko»**

zein lanetan hori agertzen da, baina zentzu politikorik gabe. Ideologiarik gabe.

**Artelana prestatzen hasi zinenean, ez zenuen laguntza handirik jaso...**

New Yorken, babes ekonomiko apur bat lortu nuen; baina Euskadin, ezer ere ez.

**Zer esan nahi du baldintza ekonomikorik gabe lan egiteak?**

Ni ez naiz artista komertziala. Horrek erabateko askatasuna ema-

ten dit nahi dudana egin ahal izateko, baina, aldi berean, arrisku handia da. Zaila da niretzat. Eten-gabeko borroka bat da. Ezin dut aurrera jarraitu, jatekorik ez badut. Babesa bilatzen dut. *Gernika* lanerako The New York Foundation for the Arts eta The New York State Council on the Arts fundazioek laguntza apur bat eman zidaten. Prestigio handiko fundazioak dira, eta nahiko markatu zuten egitasmoa. Ordea, nire poltsikotik atera da lana egiteko diru gehiena.

**Gaia aldatuta, zer moduzkoa izan da Euskal Herrirako itzulera?**

1972tik 1976ra arte hemen egon nintzen, eta esperientzi hark harrituta utzi ninduen. Nerabea nintzen, eta Francoren azken txanpa bizi izan nuen. Nire adineko lagunekin nengoen, orduko arriskua, tristezia, beldurrak eta kaosa bizitzen.

**Garai horrek garrantzia bereganatu du azken urteetan, memoria historikoaren alde egindako lanean. Artek zer ekarpen egin dezake testigantza guri honetan?**

Edozein arte mota beharrezkoa da gure zibilizazioan aurrera egiteko. Artistek sakontasun handia duten sentipenak azaleratu ditzakete; testigantzen bitartez, esaterako. Sektore guztietako artistek egiten dute hori: antzezleek, idazleek, artista plastikoek... Gizaki gisa dugun gauza apurretako bat da: edo erauzitako etxeen zatiak, edo bizipenen testigantzak. Aho-



Kultura eta aisia  
euskaraz  
Donostian

## musika

## • MUTURBELTZ + NORMAN

Martxoaren 17an, 20:30ean

Sarrera: 5€

DOKA

Eskakeitan, Betagarri eta Hiru

Gabe Bi

Martxoaren 17an, 21:00etan

Trinitate plazan.

Iparraldea bertan 2012

Kontzertua: Maddi Zubeldia eta

bere musikariak

Martxoaren 21ean, 19:30ean

Koldo Mitxelena Kulturunean

## tailerra

## • Hizkuntza jokabideen tailerra

Martxoaren 17an, 10:30ean

San Telmo museoa

## bakarrizketak

## • Bakarrizketa saioa

Antzezleak: Barry Barrez eta Aitor

Txarterina

Gidoia: Beñat Gaztelumendi

Martxoaren 17an, 12:00etan

San Telmo museoa

## zinema

## • Nosferatu: Federico Fellini

Zuzendari baten ohar-bloka

(Block-notes di un regista, 1969)

Orkestra-entsegua (Prova

d'orchestra, 1979)

Martxoaren 21ean, 20:15ean

Sarrera: 4€

Antzoki Zaharra

## mintzodromoa

## • Mintzodromoa

Martxoaren 21ean, 10:00-12:00 /

16:00-18:00

San Telmo museoa

## festak

## • Euskaraz Bizi Eguneko

egitaraua

Martxoaren 17an

11:00etan: Txupinazoa, kalejira

eta bihurrikeriak Bonberenea

txarangarekin eta Porrotx

pailazoarekin, Trinitate plazatik

abiatuta.

11:00etatik-14:00etara:

Puzgarriak eta tailerrak,

haurrentzat, Trinitate plazan.

10:30ean: Hizkuntza jokabideen

tailerra, San Telmo museoa.

12:00etan: Bakarrizketa saioa,

San Telmo museoa.

11:30etik-14:00etara: Azoka,

Trinitate plazan.

14:30ean: Bazkaria, Konstituzio

plazan; eta bazkaldu ondoren,

kantu jira.

18:30ean: Manifestazioa eta

ekitaldia, Bulebarrean.

Ondoren, Patxaranga taldea

Parte Zaharrean barrera ibiliko

da, eta herri dantzak izango dira

Konstituzio plazan

21:00etan: Eskakeitan, Betagarri

eta Hiru Gabe Bi taldeek

kontzertua emango dute.

Trinitate plazan.

www.euskaraz.net